

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jerardo Mondragon Garai

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1927-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Uribarri auzoko Telleria baserrian jaio zen, bost anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Bedoña auzoko Itturixa (Iturriaga) baserrikoa. Garagartza auzoko eskolan hasi eta "San Viator"ekoan bukatu zituen eskolok hamalau urterekin. Gerra denboran amaren baserrian babestu ziren. Hamalau urterekin ekin zion lanean, familiak Aretxabaletan zuen Ibarra sarrailagintza tailerrean. Handik Bergarako "General Mecánica" makina-erreminta lantegira joan zen, eta honen gainbeheran Torunsa torloju-fabrikan ekin zion. Arrasateko parrokiako koroan hasi zen abesten, eta Bergarara ezkontuta, bertako Umore Ona Elkarteko abesbatzako kide izan zen. Gero Bergarako Orfeoiaekin Euskal Herria eta Espainian zehar abestu zuen. "Orfeón Pamplonés"arekin Europan ere abestu zuen.

Zintak

ARR-179

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-17
- **Iraupena:** 37 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

ARR-180

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-17
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Garagartzako eskola eta San Viator

- **Erref:** ARR-179/002
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Garagartzako eskolan ibili zen mutikotan. Eskola eliza ondoan zegoen. Gerra aurretik, neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten. Gerraostean, neskak Santa Agedako eskolara joaten hasi ziren, eta mutilak Garagartzara. Ziriako Jauregi zen maisua. Garagartzako eskolatik San Viator eskolara pasatu zen. 14 urtera arte ibili zen San Viatorren.

2. Garagartzako maisua

- **Erref:** ARR-179/004
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:05:01. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Garagartzako maisuari buruzko kontuak. Ziriako Jauregi zen maisua, eta maisu oso gogorra omen zen. Ikasleek egindako bihurrikeriak. Maisuak "egurra" ematen zien.

3. Ikasle "destakatuen" artean

- **Erref:** ARR-179/005
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:07:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Garagartzako eskolako kontuak. Gelan lau arbel zauden, eta maisuak lau ikasle "destakatuenak" deitzen zituen arbelera. Maisuak ez zien azalpenik ematen. Maisua herrira joaten zenean, Jerardo lagatzen zuen gelako arduradun moduan.

4. Eskolan hitzik ere ez euskaraz

- **Erref:** ARR-179/006
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:07:31. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Garagartzako eskolako kontuak. Gerraostean, debekatuta zuten euskaraz hitz egitea. Jolas-orduan euskaraz hitz egiten harrapatuz gero, maisuak zigortu egiten zituen. Maisuaren usoentzako hostoak biltzen zituzten.

5. Eguen arratsaldetan kartutxoak biltzera

- **Erref:** ARR-179/007
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Garagartzako eskolako kontuak. Gerra denboran, frontea egon zen Murua barrenean eta Untzilla aldean. Gerra ondorenean, eguen arratsaldetan ez zuten eskolarik edukitzen, baina zaku bat hartu eta frontea egon zen tokian gelditutako kartutxo hutsak jasotzera bildatzen zituen maisuak. Kartutxo zakukadak maisuari eraman behar izaten zizkien.

6. Lehenengo tiroak

- **Erref:** ARR-179/009
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:09:17. **Bukatu:** 00:10:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra hasierako oroitzapenak. Baserritik auzoko errotara asto gainean zihoala, Murua aldetik zetozen tiroak entzun zituen.

7. Esne partitzea, errazionamendua eta nazionalak

- **Erref:** ARR-179/010
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:10:11. **Bukatu:** 00:13:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

San Viator eskolara joaten zeneko kontuak. Uribarrin nazionalek egindako parapeta bat zegoen. Goizetan, auzoko abadeari meza laguntzen ibiltzen. Etxera joan, eta zer "armozatzen" zuen kontatzen du. Esnea hartu eta kalerakoan, lau-bost bezerori banatzen zien esnea. Segidan, eskolara joaten zen. Eskolatik irtendakoan, errazionamenduko jakiak hartzera joaten zen. Jenaroren etxea esaten zioten eraikinean nazionalek kuartela eduki zuten. Marmitekin etxera zihoala, kuartelean sarrarazi zutenekoa kontatzen du.

8. Bi osaba gerran ibili

- **Erref:** ARR-179/011
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:14:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Amaren aldeko bi osaba gerran ibili ziren nazionalistekin ("gorriekin"). Osaba bat preso hartu zuten, ordea, eta Langileen Batailoietan ibili zen. Gero, nazionalekin eraman zuten gerrara. Urkiolan, Intxortan, Teruelen eta Belchiten ibili ziren gerran.

9. Aita kalean eta ama umeekin Bedoñara

- **Erref:** ARR-179/013
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:14:52. **Bukatu:** 00:17:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gerra denborako oroitzapenak. Jerardoren aitak Arrasateko Metal® Cerrajeran egiten zuen lana. Hasiera batean, lana egin eta etxera bueltatzen zen. Gero, frontea zegoela eta, ez zioten etxera bueltatzen uzten. Ama hiru seme-alabekin gelditu zen baserrian. Gauetan, inguruko "gorrien" aldekoek atea joatzen zien. Beldurra pasatzen zuten. Ganaduak eta gurdian traste batzuk hartu eta Bedoñara joan ziren, amaren aldeko senide batzuen baserri batera. Irapean traste batzuk gorde zituzten. Zazpi hilabete egin zituzten Bedoñan. Handik bueltatu zirenean, baserria hutsik aurkitu zuten: babak, artoa, ehunak, josteko makina... ostu zizkien.

10. Bedoñako egonaldia

- **Erref:** ARR-179/014
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:17:39. **Bukatu:** 00:19:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat hilabete pasatu zituzten. Tropak baserri inguruan egon ziren denboraldi batez. Bedoñan egon ziren denboran, Azatzara joaten ziren eskolara. Arropa: brusa janzen zuten. Eskolara joaten zirenean, Ojala baserrian bazkaltzen zuten.

11. Nazionalek bi granada bota osabari

- **Erref:** ARR-179/015
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:19:26. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat hilabete pasatu zituzten. Osaba idi-parea eta gurdiaekin bidean gora zihoala, nazionalen hegazkin batetik bi granada bota zizkioten. Ez zitzaion ezer gertatu.

12. Nazionalen kainoiak auzoan

- **Erref:** ARR-179/016
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:20:12. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat hilabete pasatu zituzten. Auzoan, nazionalen kainoiak non egon ziren azaltzen du. Handik bonbak botatzen zituzten Udala eta Intxorta aldera. Soldaduek almazena eduki zuten baserritik gertu.

13. Auzokoek etxea hustu

- **Erref:** ARR-179/017
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat

hilabete pasatu zituzten. Handik Uribarriko baserrira begira egoten ziren prismatikoekin. Auzokoek etxean utzi zituzten gauza guztiak harrapatu zizkien. Gurasoen joera politikoak.</p>

14. Amak josteko makina berreskuratu

- **Erref:** ARR-179/019
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:22:51. **Bukatu:** 00:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Jerardoren amak etxetik alde eginda egon ziren denboran ostutako josteko makina berreskuratu zuen gerra ondorenean. Inbidia eta ikusezinak auzokoen artean.

15. Baserriko lanak, Itturrixan

- **Erref:** ARR-179/020
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:23:28. **Bukatu:** 00:25:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra denborako oroitzapenak. Uribarritik Bedoñara joan ziren, auzokoen jazarpenetik ihesi. Bedoñan, amaren jaiotetxean, hainbat hilabete pasatu zituzten. Bedoñan egon ziren denboran, baserriko lanetan lagundu behar izaten zuten: itulan, gari-ebakitzen, arbia garraiatzen... Itturrixa (Iturriaga) baserrian zenbat senide egon ziren aipatzen du.</p>

16. Telleria baserría

- **Erref:** ARR-179/022
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:25:26. **Bukatu:** 00:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Lanbideak » Etxeginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Garai batean, Telleria baserrian teilak egiten ziren. Jerardoren aita mutikoa zela utzi omen zioten teilak egiteari. Telleria baserriaren egiturari buruzko azalpenak: buztina egosteko labeak. Buztina etxe ingurutik ateratzen zuten, eta ura ere bertan zuten.

17. Ibarra sarrailagintzan lanean hasi

- **Erref:** ARR-179/027

- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:32:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

14 urterekin eskola amaitu eta familiako Ibarra sarrailagintza lantegian hasi zen lanean, Aretxabaletan.

18. Bizikleta eta gaztetako irteerak

- **Erref:** ARR-179/028
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Andregaia San Martzialgo erromerian ezagutu zuen. Gaztetan, asko ibiltzen zen bizikletan. Jai arratsaldetan Urkiolara, Otxandiora, Bergarara... joan ohi zen bizikletan. Jai goizetan, meza eta baserriko eginkizunak.

19. Nobio garaia

- **Erref:** ARR-179/029
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:33:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Nobio garaiko kontuak. Arrasatetik Bergarara trenez joan ohi zen: bizikleta furgoian sartzen zuen. Bergarako taberna bateko sotoan gordetzen zuen bizikleta, eta andregaiarekin ibiltzen zen paseoan. Uda partean, bizikletaz bueltatzen zen Arrasatera.

20. General Mecánica lantegia

- **Erref:** ARR-179/031
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:34:47. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Ibarra lantegia utzi eta Bergarako General Mecánica makina-erreminta lantegian hasi zen lanean. Lantegia non zegoen azaltzen du. Jerardo lantegiaren fundatzaileetako bat izan zen.

21. Solista, auzoko elizan

- **Erref:** ARR-180/004
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:07:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Mutikotan, solista moduan abesten zuen auzoko elizan. Auzoko apaizak Arrasateko apaiz eta organistarekin hitzordua lotu zion, eta lau-bost mutikoren entseguetara joaten hasi zen. Gero, Arrasateko Parrokiako Abesbatzan ibili zen urte askoan.

22. Umore Ona eta Bergarako Orfeoia

- **Erref:** ARR-180/005
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:07:06. **Bukatu:** 00:09:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Jerardo Bergarara ezkondu zen. Bergaran, Umore Ona taldean hasi zen kantuan. Gero, Bergarako Orfeoitik deitu zioten, eta Orfeoian hasi zen. Bergarako Orfeoiarekin kantuan ibilitako tokiak aipatzen ditu.

23. Bilboko Koralarekin ere kantuan ibilia

- **Erref:** ARR-180/006
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:09:07. **Bukatu:** 00:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bergarako bost edo sei lagun Bilboko Koralean ere aritzen ziren kantuan, errefortzu moduan. Bilboko Koralean parte hartu zuen azken emanaldia Benjamin Britten 'Gerrako Requiema' izan zen. Sevillan bi kontzertu eta Madrilan eta Bilbon kontzertu bana eman zituzten.

24. Iruñeko Orfeoiarekin, European barrena

- **Erref:** ARR-180/008
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:10:06. **Bukatu:** 00:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Iruñeko Orfeoiaekin ere aritu izan da kantuan. Europako hainbat txokotan kantatu du "Pamplonesarekin".

25. Bergarako Orfeoiaren entseguak

- **Erref:** ARR-180/013
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:13:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bergarako Orfeoian hasi zenean, batzokia izandako eraikinean entseatzen zuten. Don Roman Oiartzabal medikua zen Orfeoiko zuzendaria. Entseguak 22:00etatik 23:00etara izaten ziren. Hurrengo egunean, 07:00etan trena hartu behar izaten zuen lanera joateko.

26. Ama, Arrasatera eta Oñatira plazara

- **Erref:** ARR-180/015
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:14:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eskolatik baserrira bueltatutakoan, hango lanetan lagundu behar izaten zuen. Jerardoren ama Arrasatera eta Oñatira joaten zen berdurak eta landareak saltzera. Ostiraletan eta Domeketan egoten zen merkatua Arrasaten.

27. Landara saltzera tribulian

- **Erref:** ARR-180/016
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:14:56. **Bukatu:** 00:16:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Uribarri auzoko baserri askotan landatzen ziren barazkiak. Jerardoren ama Arrasatera eta Oñatira joaten zen berdurak eta landareak saltzera. Gero, anaiak jarraitu zuen. Lehenengo, astoarekin joaten ziren plazara. Gero, ordea, zaldia eta tribuliarekin.

28. Ortuko lanak

- **Erref:** ARR-180/018
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:16:27. **Bukatu:** 00:18:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Ortuan, laiarekin edo horzbikoarekin biratzen zuten lurra. Zer barazki landatzen zituzten: porrua, tipula, aza, letxuga... Ortua ureztatzeko errekatik hartu behar izaten zuten ura. Negu partean, arbia ateratzea.</p>

29. Mendia garbi eduki behar

- **Erref:** ARR-180/019
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:18:03. **Bukatu:** 00:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Jerardoren amari mendia garbi edukitzea gustatzen zitzaion. Ira eta ota ebakitzera joan behar izaten zuen. Pinua sartu zutenean, otak ez zuen hainbeste indar hartzen.

30. "Gari-jorran"

- **Erref:** ARR-180/020
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:18:26. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

"Gari-jorra", gariaren artean hazten zen oloa, "trebolia" eta "aixena" (aihena) ateratzeko egiten zen. Jorra-aitzurra erabiltzen zuten gari-sailean hazitako belar txarrak kentzeko. Jorra-aitzuraren deskribapena.

31. Kupoia eta estraperloa

- **Erref:** ARR-180/021
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:23:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserrian ez zuten uzta handia biltzen, eta bildutako dena kupoan entregatu behar izaten zuten. Zenbaitetan, ez ziren iristen kupoa osatzera. 14 urte zituela Bedoñatik Ozaetara (Araba) oinez joan zen lehengusua eta asto parean hartuta patata eta gari bila. Estraperloa.</p>

32. Txerri-hiltzea, ezkutuan

- **Erref:** ARR-180/022
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:23:13. **Bukatu:** 00:24:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Gerraostean, baserritarrek deklaratu egin behar izaten zuten txerriren bat hil behar zutenean. Jerardoren aita txerri-hiltzen ibiltzen zen. Guardia Zibilen kontrolak. Aitak goizaldean hiltzen zituen txerriak. Txerriari kaina bat sartzen zion ipurdiko zuloan, kurrinkadarik ez egiteko.

33. Astoarekin errotara

- **Erref:** ARR-180/024
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:25:03. **Bukatu:** 00:26:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Auzoko errota prezintatuta zegoen. Elgetara bideko Errota-Erdikoa errotara joana da astoarekin garia trukatzera. Murua gainetik Baztarraldera ere joana da astoarekin, errotara. Berak ez zuen bidea ezagutzen, baina astoak bai.

34. Ura eta argindarra

- **Erref:** ARR-180/025
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Beti ezagutu izan du argindarra baserrian. Baserritik gertu metal ura zuten, eta Jerardo mutikoa zela jarri zuten ura etxean.

35. Gari-jotzea

- **Erref:** ARR-180/026
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:28:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Lehenengo, eskuz jotzen zuten garia. Larraina nola antolatzen zuten deskribatzen du. Gero, argindarrarekin martxan jarritako motor elektrikoa erabiltzen hasi ziren. Motorra auzokoen artean erositakoa zen.

36. Lehen dena aprobetxatzen zen

- **Erref:** ARR-180/027
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:28:51. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Antzinako bizimoduari buruz hitz egiten du. Senide asko izaten ziren etxeetan. Garbitasuna, ahal zen modukoa. Platerak garbitzeko erabiltzen zen ura txerrien jana prestatzeko erabiltzen zen gero. Txiki gelditutako arropak anaia batetik bestera pasatzen ziren.

37. Dantza kontuak

- **Erref:** ARR-180/029
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:30:21. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

Uribarri aldean, ez zuten arazorik izaten neskekin dantzan egiteko. Aldiz, Oñatin dantza eskea eginez gero, hango neskek Mariaren alabak kongregaziokoak zirela esaten zien, eta ez ziren dantzara ateratzen.

38. Jai arratsaldetako jolasak eta "bailableak"

- **Erref:** ARR-180/031
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:31:18. **Bukatu:** 00:32:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

15-16 urte artean, auzoan ibiltzen ziren neska-mutilak bale-baleka. "Aramaittekua" jotzen zutenean, etxera. 17 urte ingururekin, kalera joaten hasi zen. Tabernaren batean kafea eta kopa edan eta zigarroren bat erretzen zuen. Gero, bandaren dantzaldia izaten zen plazan; azkenengo pieza, pasodoblea. Jaiero izaten ziren "bailableak" Arrasaten.

39. Hiletak eta monagilotza

- **Erref:** ARR-180/032
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:32:28. **Bukatu:** 00:33:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Auzoko abadeak 5 zentimo ematen zizkien astearen akabera monagilo lanengatik. Hiletaren bat egoten zenean, hiru meza izaten ziren (bi aldare txikietan eta hirugarrena aldare nagusian): orduan, erreala ematen zien meza laguntzeagatik. Hiletei buruzko azalpenak.</p>

40. Domu Santu Eguna

- **Erref:** ARR-180/033
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:33:26. **Bukatu:** 00:33:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Domu Santu Eguneko ohiturak. Olata (opila) eguna izaten zen. Kandelak pizten zitzaizkion sendiko azken hildakoari. Elizan lagatzen zituzten olatak eta dirua.

41. Monagilotzako dirua

- **Erref:** ARR-180/034
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:33:54. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Auzoko abadeari meza ematen laguntzeagatik astearen akabera 5 zentimo jasotzen zituzten. Hileten kasuan, erreala izaten zen. Jerardoren lagun batek abadeari 5 zentimoko txanpona bota egin zion, diru gutxi zela adierazteko. Handik aurrera ez zien dirurik eman.</p>

42. Monagilotzako diruarekin pospoloak erosi

- **Erref:** ARR-180/035
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Mutikotako kontua. Udazkeneko jai arratsalde batean zer egin ez zekitela, mendira joan eta gaztaina batzuk erretzea pentsatu zuten Jerardok eta lagunak. Meza laguntzen irabazitako diruarekin pospoloak erosi zituen Jerardok auzoko Gau-Txori tabernan. Abadeak, ordea, Jerardoren amari galdetu egin zion ea semeak dirua entregatu zion. Etxera joan eta diruarekin zer egin zuen kontatzean, amak belarrondokoa jo zion. Abadeak ematen zion dirua etxean entregatu behar izaten zuen.

43. Gose garaia

- **Erref:** ARR-180/036
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:35:37. **Bukatu:** 00:37:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendu garaiko kontuak. Labesua egiten zuten etxean. Olio falta. Boniatoa (patata) brasan prestatzen zuten. Telleria baserri txikia izanik, nahiko lan izaten zuten jan kontuetan.

44. Arabara etxerako gari eta patata bila

- **Erref:** ARR-180/037
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:37:03. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraosteko egoera. Telleria baserri txikia izanik, nahiko lan izaten zuten jan kontuetan. Etxean egiten zuten gari guztia entregatu egin behar izaten zuten. Etxerako gari bila Arabara joaten ziren. Guardia Zibilak estraperloko patatarekin ia harrapatu zuenekoak kontatzen du.

45. Estraperloko ibilerak

- **Erref:** ARR-180/038
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:39:40. **Bukatu:** 00:41:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Bedoñan egon ziren denboran, lehengusuarekin joaten zen Arabara estraperloan jeneroa ekartzera. Lehengusuak ondo ezagutzen zituen inguruko bideak. Mendiko ibilerak: ordu asko oinez eta lorik egin gabe.</p>

46. Ardo zahagia etxean

- **Erref:** ARR-180/039

- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:41:05. **Bukatu:** 00:41:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Bere gogoan, beti ezagutu izan du ardo zahagia etxean. Arabako ardozale batzuk joaten ziren auzora ardoa ematera, eta 50-60 litroko ardo zahagiak uzten zituzten baserri batean. Gero, baserritarrari ordaindu eta zahagia karretilan eramaten zuten etxera.

47. Auzoko jaietan, gonbidatuak

- **Erref:** ARR-180/040
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:41:56. **Bukatu:** 00:43:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Abuztuaren 24a, San Bartolome Eguna da Uribarriko jaieguna. Auzoko zaindaria, berriz, Itxaropeneko Ama. Abuztuan, gonbidatuak izaten zituzten baserrian. Ohitura handia zegoen jaietan senideak etxera bazkaltzera gonbidatzeko. Jateko berezia izaten zen egun horietan.

48. Etxean egindako izozkia

- **Erref:** ARR-180/041
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:43:47. **Bukatu:** 00:45:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Jaiegunetan, gonbidatuak izaten zituzten baserrian. Postrerako izozkia egiten zuten etxean. Izozkia egiteko Elma etxeko aparatu bat erabiltzen zuten. Kanean erosten zuten izotz barra.

49. Gonbidatuak

- **Erref:** ARR-180/042
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:45:18. **Bukatu:** 00:45:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Abuztuan, San Bartolome jaietan, gonbidatuak izaten zituzten baserrian. Egun batean baserri bateko senideak joaten ziren, eta beste egunean, beste baserrikoak. Jende asko biltzen ziren etxean.

50. Santa Eulalietan, Bedoñara

- **Erref:** ARR-180/044
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:46:39. **Bukatu:** 00:47:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Bedoñako jaiak Santa Eulalia Egunean izaten ziren. Ilusio handiarekin joaten ziren hango senideen etxera. Bedoña eta Arrasate arteko bi bide aipatzen ditu. Etxera bueltan, lasto-azaoak piztuta.

51. Biderakoak eta elizakoak

- **Erref:** ARR-180/046
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:48:46. **Bukatu:** 00:50:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Abadearekin batera elizakoak banatzera nola joaten zen kontatzen du. Monagiloak esku batean kanpai txiki bat eta bestean farola eramaten zituen. Abadea, berriz, komunioarekin joaten zen.

52. Uribarriko galdutako baserriak

- **Erref:** ARR-180/047
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:50:43. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Uribarri auzoko ia baserri denak galdu dira. Galdutako baserri batzuen izenak aipatzen ditu. Telleria baserria zen tokian lantegiak daude orain.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com